

# I. GRADUKO MENDEKOTASUNA DUTEN ADINEKOENTZAKO EGUNEKO ARRETARAKO ZERBITZUA

Garrantzitsua

**Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.**

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

**Pertsona 65+ mendekotasuna > Eguneko zentro baterako sarbidea**

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

## Norentzat

**65 urte edo gehiagoko pertsonak**, mendekotasun-arriskuan daudenak edo I. graduko mendetasuna dutenak. Mendekotasuna baloratzeko baremoan (MBB) 23 puntutik 49 puntura.

## Kostua

**Koordainketaren mende dagoen zerbitzua**, pertsonaren egoera ekonomikoaren eta baliabidearen erabileraren arabera.

## Baldintzak

**65 urte edo gehiago. Mendekotasun-arriskua edo I. graduko mendekotasun.** Intentsitate txikiko laguntza behar izatea.

## Zertan datza?

Adinekoak egunean zehar erabil dezake intentsitate txikiko baliabide hori, bere ohiko bizimoduan jarraitu, bere autonomiari eutsi eta gizarte-harremanak hobetzeko. Batez ere, familiarekin bizi diren adinekoentzat da ([1.7 fitxa](#)). Eguneko arreta-zerbitzuan adineko erabiltzaileari informazioa, estimulazio-jarduerak, aisialdi- edo kultura-jarduerak eta intentsitate txikiko gizarte-laguntza eskaintzen zaizkio. Garraio egokitua, mantenu eta higiene pertsonaleko zerbitzuak ere barne har ditzake. Zerbitzua aldi baterako edo modu iraunkorrean erabil daiteke.

## Norentzat?

65 urtetik gorako pertsonak, **mendekotasun moderatuko egoeran edo arriskuan daudenak** (I. gradua). Mendekotasuna baloratzeko baremoan (MBB) 23 puntutik 49 puntura.

## Mendekotasun arriskua edo mendekotasun moderatua (I. gradua)

Pertsonak eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduera egiteko laguntza behar duenean, gutxienez **egunean behin**, edo autonomia pertsonalerako aldizkako edo mugatutako laguntza-premiak dituenen. Mendekotasuna baloratzeko baremoan (MBB) 23 puntutik 49 puntura izanik.

## Zein da zerbitzuaren kostua?

**Koordainketaren menpe dagoen zerbitzua** da, hau da, erabiltzaileak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du bere egoera ekonomikoaren eta zerbitzua erabiltzeko modalitatearen arabera.

## Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

**65 urte edo gehiago izatea.**

**Mendetasun moderatua edo I. gradua izateko arriskua izatea** (MBBn 23 eta 39 bitarteko puntuazioa).

**Intentsitate txikiko laguntza** behar izatea.

## Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

[Kontsultatu informazio osoa](#)